

ESTADIO

Vital FUNDAZIOA

2025EKO JARDUERA-TXOSTENA

01
GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEKIN LERROKATZEA

02
65 URTE KIROL ERREFERENTE IZATEN

03
ESTADIO BERRIA

- ‘GLOBOAREN’ BALIABIDEA
- TRANPOLINA BERRITZEA
- ERAITSI, HAZTEKO
- BEHIN-BEHINEKO ALDAGELAK TRINKETAREN ONDOAN
- EGUZKI-EREMU FOTOVOLTAIKOA
- ESTADIO BERDEAGOA
- OSTALARITZA ZERBITZUA BERRITZEA

04
KIROL-INSTALAZIO ESTALIAK

05
KANPOKO INSTALAZIOAK

06
ABONATUAK

07
KIROL JARDUERAK

- 2024/25 DENBORALDIA ‘NON STOP’
- 2025EKO UDA ‘UDA MARTXAN, UDA AKTIBOA!
- 2025/26 DENBORALDIA ‘KIROLA, ERREZETARIK ONENA’
- KIROL PLUS FORMULA
- LIFE FITNESS APP BERRIA
- KIROL PLUS SAIOAK HILABETEZ HILABETE 2025
- BIDERATUTAKO JARDUEREN ESKAINTZA OSOA 2025

KANPAINAK

08

KIROLAZ KANPOKO JARDUERAK

09

ESTADIO

Vital FUNDAZIOA

01

GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEKIN LERROKATZEA


Estadio Vital Fundazioa kirolaren kultura sustatzeko eta jarduera fisikoa erregulartasunez egin dadila sustatzeko sortutako erakundea da. Sortzez, izaera kulturaleko erakunde pribatua da, Vital Fundazioen taldekoa, eta bere helburua da kirol-jarduerak, gizarte- eta kultura-jarduerak, eta jolas-jarduerak sustatzea eta egin daitezela ahalbidetzea. Fundazioa Vitoria-Gasteizen dago, bertako Cervantes ibilbidean.

Estadio Vital Fundazioaren xedea bikoitza da: kirolaren kultura garatzen laguntzea eta abonatuen artean nahiz Gasteizko eta Arabako gizartean jarduera fisikoaren praktika erregularra sustatzea. Fundazioaren ikuspegia, bestalde, bere interes-taldeentzat erreferentea izatea da, instalazio eta antolaketa arduratsuari, jasangarriari eta gaur egungoari dagokionez, baita kirola gizartean garatzera bideratuta diharduen erakundea izatea ere, lau balio nagusi ardatz hartuta: pertsonak, lankidetza, kalitatea eta kirola.

Estadio Vital Fundazioak, kirolaren kultura sustatzeko eta jarduera fisikoa erregulartasunez egiteko duen konpromisoan, bat egiten du Nazio Batuen 2030 Agendan definitutako Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH). Kirol-, gizarte-, kultura- eta jolas-jarduerak sustatzeko eta ahalbidetzeko egiten duen lanak **3. GJHa (Osasuna eta ongizatea) eta 4. GJHa (Kalitatezko hezkuntza)** partekatzen ditu. **6. GJHaren** alde ere lan egiten du: **Ur garbia eta saneamendua; 11. GJHa: Komunitate jasangarriak; eta 17. GJHa: Helburuak lortzeko aliantzak.**
















02

65 URTE KIROL ERREFERENTE IZATEN

Estadioa 1960ko apirilaren 24an inauguratu zen ofizialki. Harrezkero, eta gaur egun arte, 65 urte hauetan zehar, 40.000 metro koadroko instalazioak etengabe berritu dira eta zabaldu egin dira eskaintzen diren kirol modalitateak: igeriketa, atletismoa, gimnasia, pilota, tenisa, squasha, futbola eta saskibaloia eta sasoi fisikoa zaintzearekin eta horri eustearekin lotutakoak.

Aurreko udan, 1959ko abuztuan, oraindik amaitu gabe zegoen Estadioa, Gasteizen egin ziren Espainiako Igeriketa eta Jauzi Txapelketen egoitza izan zen. Garai hartan, Espainiako instalazio modernoenak ziren. Gizonezkoentzako igerileku bat eta emakumezkoentzako beste bat zuten, frontoia, tenis-pistak eta kafetegia. Baita gaur egunera arte iritsi den tranpolin berezia ere, Italiako Ostia herrian dagoenaren berdin-berdina. Berritasun handia garai hartan 70.000 biztanle baino ez zituen Gasteiz hartan. Horrela, kirola egiteko beharrei erantzun zitzaien, batez ere igeriketa arloari; izan ere, kirol horretako zaleek Judizmendi Igeriketa Klubean eta San Prudentzio kaleko igerileku zaharretan baino ezin zezaketen igeri egin.

Ekimena hainbat alderdiren lankidetzaren emaitza izan zen: Urquiola eta Aranzabal industrialariena, eraikuntzarako lursailak laga baitzituzten; Judizmendi Igeriketa Klubarena; eta obrez arduratu zen Aurrezki Kutxa Probintzialarena. Espazio berri hura oso azkar bihurtu zen lehiaketak egiteko leku, baina baita gasteiztar askoren kirol eta gizarte aisialdirako leku ere. Sei hamarkada hauetan, Estadioa erakunde oso garrantzitsu bihurtu da hirian, eta funtsezko zutabe Gasteizko eta Arabako kirolarentzat.

* Estadio zaharraren eta bertan egindako lehiaketen argazkiak, baita tranpolinetik egindako jauziak jaso zituen Zeledon 1960 jai-aldizkariaren azala ere.

03

ESTADIO BERRIA


2025ean, Estadio Vital Fundazioak aurrera egiten jarraitu du berregituratze-prozesuan, eta Estadio Berria proiektuari ekin dio. Kirol-gunearen eraldaketa itzela da, hausnarketa sakon baten emaitza, instalazioak eta zerbitzuak hobetzeko eta, horrela, abonatutako pertsonen eta, oro har, gizartearen jarduera fisiko eta aisialdiko praktiken etorkizunari arrakastaz aurre egiteko.

TRANPOLINA BERRITZEA

Estadioaren ikurra, bere tranpolin ospetsua, zaharberritzen amaitu du. Pintura berritzeko eta hormigoizko oinarria ziurtatzeko prozesuaren ondoren, korrosioak eragindako narriadura konpontzeko – sei hamarkada baino gehiagoko erabilera jarraituaren ondorioz –, elementu guztiak (plataformak, eskailerak, eskailera-buruak eta barandak) konpontzeari ekin zaio, berriro egoera ezin hobean erabili ahal izateko, jatorrizko itxura errespetatuz.

Argiztapen sistema bat ere txertatu da, instalazioak itxi arte piztuta egoten diren eta erabilera moldakorragoa eta bisualki erakargarriagoa ahalbidetzen duten LED tira batzuen bidez, baita argi natural gutxiagoko orduetan ere.





‘GLOBOAREN’ BALIABIDEA

Lurpeko zimendatze batek eta mintz bikoitzeko estalki presostatiko batek osatzen dute, eta airea sartuz kanpoko igerilekua estaltzeko diseinatutako egitura bat da, euskarri solido eta astun bat erabili beharrik gabe. ‘Globoa’, neguan kanpoko igerileku familiarra etengabe erabiltzea ahalbidetu duen formula, maiatzean kendu dute, uda sasoian igerileku familiarra eta bere inguruko zelaia berreskuratu ahal izateko.

Udazkenean instalatu dute berriro, igerileku klimatizatua erabili ahal izateko, araudietan ezarritakoa betetzen duen tenperaturari eutsiz eta abonatutako pertsonei eguraldi txarra saihesteko aukera emanez. 25 eta 50 metroko igeri egiteko kaleak, igerilekurako sarbide zuzena duten behin-behineko aldagelak, dutxak, armairuak, eserlekuak eta botikinerako etxola bat izan ditu.



ERAITSI, HAZTEKO

2025ean, eraiste-lanek eta eraikin nagusiko tresnak kentzeko lanek aurrera jarraitu dute. Eraikin horrek 9.000m^2-tik gorako azalera du, eta uren eremua, fitness-espazioak, aldagela nagusiak eta abar zituen. Hargune elektrikoak eta suteen aurkako babesak aldatzeko lanak ere egin dira.

Landare-lurrezko kanpoko estalkia ere kendu da, eta eraikin nagusi berria gazteen eraikinerantz hazten hasi da.

Asko aurreratu da, eta guneak definitzen hasi dira: gizonezkoen, emakumezkoen, familien eta kluben aldagelak; fitness aretoa eta bere eremu funtzionala, indar elektronikoa eta selekorizatuak, kardioa eta pisu librea; Hyrox gunea; hastapeneko igerileku berria; 25 metroko lehenengo igerilekua; eta 25 metroko bigarren igerilekua hartuko duen eremua. Horrek guztiak eraikin berria gazteen eraikinera hurbilduko du, azken horretatik metro batera baino ez dago-eta.

Igerileku berri horren inguruko eremua hormigoitu da, eta kanpoko kirol terraza non kokatuko den zehaztu da.







BEHIN-BEHINEKO ALDAGELAK TRINKETAREN ONDOAN

Eraikin nagusia eraistearen ondorioz, behin-behineko aldagela batzuk eraiki behar izan dira trinketaren ondoko zelaian. Ia 20 modulu instalatu dira elkarrekin, argi naturala izan dezaten eta abonatutako pertsonei zerbitzua emateko behar bezain zabalak izan daitezen. Bakoitzak 190 m^2-ko azalera erabilgarria du, eta 12 dutxa, 6 komun eta 6 konketa.

Gainera, aldagela bakoitzaren barruan mugikortasun urriko pertsonentzako modulu bat jarri da, irisgarritasuna duten komunontzia, dutxa eta konketa dituena, baita txorrota tenporizatuak ere.

Aldagela guztiak klimatizatu dira (hotza/beroa), eta hezeguneak eta komunak aireztatu dira. Armairuak, eserlekuak, pixoihalak aldatzeko lekuak, lehorgailuak, paperontziak eta ispiluak instalatu dira.



EGUZKI-EREMU FOTOVOLTAIKOA

2025ean transformazio zentro berri bat egin da, ahalmen handiagokoa eta efizienteagoa, Estadioko eraikin eta hargune guztiak elikatzeko. Horregatik, banaketa koadro nagusi berri bat instalatu da, etorkizunean behar diren energia eskaerei erantzun ahal izango dieten hargune berrien kalitatea eta bizitza ziurtatzeko.

Era berean, sorkuntza puntan 400 kW baino gehiago emango dituen autokontsumorako eguzki-eremu fotovoltaiko bat integratu da, eta, ekologia- eta ingurumen-erantzukizunagatik, instalazio osoan banatu da.





ESTADIO BERDEAGOA

Eraikin nagusi berriaren estalkian argindarra sortzeak nahiz ura berrerabiltzeko sistemak espazio berdeagoa bihurtu dute Estadioa 2025ean.

Euri-urak biltzeko sistema hobetzeari ekin zaio, eta ureztatzeko berrerabiltzeko egokitu dira. Halaber, saneamendu-instalazioa prestatu da, eta horri esker, igerilekuko errefusa-ura sanitarioetarako aprobetxatuko da.

Klimako instalazioak fitness-gunera hedatzeko lanak amaitu dira, eta suteen aurkako babes-sistema berriak egokitu dira, hodien eta kanalizazio orokorren sekzioak araudietara egokitu baitira.

Horrek guztiak lagundu du ingurumena etengabe errespetatzeko gure politika eguneratzen, bai eta gure instalazioen autokontsumoa sortzen ere.

OSTALARITZA ZERBITZUA BERRITZEA

Kafetegiko eraikina berritzeko obrak direla eta, ostalaritza zerbitzua erabilera horretarako prestatu den WORKING ESTADIO gunera lekualdatu da 2025ean.

Gerentzia berri bat lanean hasi da abonatu guztiek arreta hobea eta eskaintza gastronomiko askotarikoagoa eta kalitate handiagokoa izan dezaten.

2025eko ekainetik 'Harmoni Goods by GÜREIK' janari osasungarria eta orekatua eskaintzen hasi da, zaporearen, freskotasunaren eta jasangarritasunaren arteko harmonian oinarrituta, eta sasoiko osagaiak erabiliz.

2025eko urrian sukaldeko lanak egiten hasi dira, eta jantoki berri bat nahiz taberna gune birmoldatua egitea ere aurreikusi da. Itxura erabat berrituko da eta 2026ko apirilean inauguratzea aurreikusi da.




04

KIROL-INSTALAZIO ESTALIAK



1. ARETOA: JUPITER

Zutaberik gabeko Estatuko aretorik handiena: 450 m². Kirol Plus jarduera gidatuak egin diren espazio berrian dago, batez ere tonifikazio eta koreo jarduerak.



2. ARETOA: LURRA

330 m²-ko aretoa, intsonorizazio-panelez inguratua. Bertan, Kirol Pluseko jarduera gidatu lasaiagoak eman dira, yoga, bizkarra eta pilates barre, besteak beste.



3. ARETOA: MARTE

330 m²-ko aretoa, 2. aretoaren ezaugarri berberak dituena. Kirol Pluseko Pilates mat eta hiit klase gidatuetarako erabili da batez ere.



4. ARETOA: MERKURIO

330 m²-ko aretoa, bi pantaila handiz, azken belaunaldiko 74 (+2) bizikletaz eta argi eta soinu sistema batez hornitua. Spinning, triatloi eta ariketa kardio-osasungarriko saioak egin dira bertan.



5. ARETOA: ARTIZARRA

330 m²-ko aretoa, intentsitate handiko entrenamendu fisikorako baliabide guztiez hornitua. Hainbat jardueratako saioak eman dira, hala nola HIIT, Funtzionala, GAP, Indarra emakumeentzat, Tonu oro... guztiak Kirol Plus formulan sartuta.



6. ARETOA: AERO

Jardueretarako eraikinaren solairuartean dagoen aretoa da, eta sabaitik zintzilik dauden hamakak edo oihalak ditu. Kirol Pluseko Pilates Aero eskola gidatuetarako erabili da.



TAPIZ ARETOA

Barraz, hainbat elementuz, koltxonetaz eta 12x12 m-ko tapizaz hornitutako aretoa. Kiroldegian obrek dirauten bitartean. Boxingfit klaseak, zenbait mantentze-gimnasia eta entrenamendu funtzionala egin dira 55 urtetik gorakoentzat, besteak beste.



CIRCUIT ARETOA

50 minutuko erresistentzia-entrenamendua eta zirkuitu aerobikoa egiteko aretoa. Kiroldegian jarraitu du obren IV. fasea amaitu arte.



FITNESS

Jarduera fisikorako espazio honek azken teknologiak ditu entrenamenduan eta makina kardiobaskularretan, APP Fitness, wifi eta profesionalek artatzen dute. Areto honen erabilerak Kiroldegian jarraitu du, IV. Faseko obrak direla eta.



ALLEGRO ARETOA

Jarduera gidatuetarako gela, 11 makinaz (allegro reformer) eta Pilates metodoa praktikatzeko material espezifikoaz (intentsitate handiagoz) eta antzeko beste jarduera batzuetarako materialaz hornitua. Erabat hornitutako modulu batean egon da, tenis pista berritik gertu.



INDARBOX

Erabilera libreko aretoa da, indarra eta muskulazioa entrenatzeko makineria, egiturak eta pisuak dituena, baita hainbat makina kardiobaskular eta luzapenak egiteko gunea ere. Frontoian jarraituko du.



ERABILERA ASKEKO KARDIO ARETOA

Entrenamendu kardiobaskularrerako makineria duen gela (eliptikoak, step-ak eta erabilera libreko bizikletak). Trinketa eraikineko 1. solairuan egon da.



GAZTEEN ERAIKINEKO GELAK

1. eta 2. gelak lehenengo solairuan dauden erabilera anitzeko aretoak dira. 3. gela beheko solairuan dago. IV. faseko obretan jarduerak birkokatzeko erabili dira, hasieran eskainitako jarduera garatzen jarraitu ahal izateko. Aurreikuspenen arabera, obrak amaitu ondoren ere kokapen horretan jarraituko dute.



GAZTEEN ERAIKINEKO IGERILEKUA

Gazteen eraikinaren beheko solairuan dago, eta aldageletarako nahiz igerilekurako sarbidea kalean bertan dago. Bertan egiten den jarduerak ez du gorabeherarik izan obrak egin diren bitartean.



KIROLETAKO KARPA

Saskibaloi kantxan egon da, futbol zelaiaren ondoan. Haurrentzako jarduerak eta campusak egiteko gune estalia izatea ahalbidetzen du.



TENIS PISTAK

2. eta 3. tenis pistak estaliak dira eta arauzko neurriak dituzte. Batak tennis-quick gainazala edo sintetikoa du eta argiztapen artifiziala, eta pista berria supersoft erretxinazkoa da eta LED argiztapena du. 2025ean ohiko jarduerari eutsi diote.



PADEL PISTAK

4 padel-pista estaliak, arauzko neurriak, belarrezko gainazala eta argiztapen artifiziala dituztenak. 2025ean ohiko jarduerari eutsi diote.



TRINKETA

28.5 m x 8.5 m-ko trinketa, eskuineko pareta kristalezkoa du eta harmaila; hartara, euskal pilotaren modalitate ia guztiak praktikatzeko aukera ematen du (eskua, larruzko paleta eta gomazkoa, sare), frontenisaz gain. 2025ean normaltasunez eutsi dio bere jarduerari.

05

KANPOKO INSTALAZIOAK



AGORA PLAZA ETA LORATEGIAK

Estadio Fundazioaren sarrera erabilera anitzeko plaza bat da. Bideo wall bat du, jarduerei eta ekitaldiei buruzko informazio praktikoa eskaintzeko, eta abonatutakoek erakusketez nahiz kontzertuez goza dezakete. Lorategiak, haur-parkea eta piknikerako prestatutako guneak eremu irekiak dira, aisialdia nahiz atsedena errazten dutenak.



SASKIBALOI PISTAK

Saskibaloiko pista bi dira, 26 x 14 metrokoak, eta zoladura minerala, hormigoi leundua eta galtzada-harria dute. Lehenengoa instalazioaren sarreraren ondoan dago, eta bigarrena futbol zelaitik gertu.



KANPOKO TENIS PISTA

1. tenis pista da hiruretatik estalkirik ez duen bakarra. Uda sasoian emakumezkoen eta gizonezkoen OPEN IBPak egiten dira bertan.



KANPOKO IGERILEKUAK

Abonatutakoek udan gehien erabiltzen dituzten instalazioak dira: familia igerilekua, haurrena eta tranpolinarena. Familia igerilekua neguan ere erabili ahal izan da, globoaren baliabideari esker. Haurrentzako igerilekua eta tranpolinarena udako denboraldian baino ez dira erabiltzen. Sorosleek artatzen dituzte hirurak. Erabilera normalari eutsi diote.



FUTBOL ZELAIA

50 x 20 m-ko belar artifizialeko futbol-zelaia, padel-pisten ondoan kokatua. Bere jarduera ohikoa izan da 2025ean, bahiz eta obran izan.



PUTXEA

Eskubiko pareta eta 20 metro luzeko frontoi laburra aire zabalean, euskal pilotaren hainbat modalitate praktikatzeko.



HONDARTZAKO BOLEIBOL PISTA

6x12 m-ko neurriak ditu eta sarearen altuera 2,3 m-koa da. Padel-pisten atzean dago. Udako hilabeteetan gozatu ahal izan da.



KANPOKO BOULDERRA

35 m^2-ko azalera bertikala du (2,7 m-ko altuera), eta erortze moderatua (% 11), 6 forma geometriko eta 350 presa ditu, aire zabaleko eskaladaz gozatzeko. Ohiko funtzionamenduari eutsi dio.



KANPOKO MAHAI TENISA

Estadioak mahai teniseko hiru mahai ditu kanpoaldean. Mahai bi daude aire zabalean, jauzietako igerilekutik gertu, eta mahai bat aire zabalean, gazteen klubetik gertu, jolastokiaren ondoan. Erabilera libreari eutsi zaio urtean zehar.

06


ABONATUAK

Gaur egun, Estadio Vital Fundazioak 19.663 abonatu ditu 2025eko abenduaren 31n

Zifra hori **aurreko urtekoa baino pixka bat handiagoa** da, ia % 1eko ehunekoan (+%0,96), 187 abonatu gehiago baititu. Ekitaldian **891 alta** eta **659 baja** erregistratu dira, hau da, 2024ko alta berrien guztizko kopuruarekin alderatuta ia % 8ko igoera esanguratsua, eta aurreko urteko baja guztiekin alderatuta -%12,25eko jaitsiera nabarmena. Hurrengo banakapena adin-taldearen araberakoa da:


Grafikoak abonatutako pertsonen banaketa islatzen du, adin-taldeen arabera. Ehunekorik handiena, **% 28,** 33 eta 54 urte bitartekoei dagokie; 16 eta 34 urte bitartekoen eta 55 eta 74 urte bitartekoen tarteek ia ehuneko bera dute, **% 22** eta **% 24,** hurrenez hurren. Abonatu gazteenak, 16 urtetik beherakoak, **% 19** dira, eta 75 urtetik gorakoak, berriz, guztizkoaren **% 7.**

Abonatuen bilakaera




	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
Pertsona kopurua	667	499	777	694	827	744	891

Abonatuen ehunekoak adinaren arabera



Abonatuen kopurua abenduaren 31n



	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
Pertsona kopurua	19.701	19.395	19.465	19.505	19.544	19.476	19.663







07

KIROL JARDUERAK

2024/25 DENBORALDIA
‘NON STOP’

2025eko urtarriletik ekainera honako ikastaro eta jarduera hauek eskaini dira:

HAURRAK (12 URTETIK BEHERAKOAK)

Akrobaziak, saskibaloia, oinarrizko kirola, funky hiphopa, futbola + balioak, gimnasia erritmikoa, karatea, minibasketa, minifutbola, igeriketa, padela, euskal pilota, tenisa eta triatloia. Horiei gehitu behar zaizkie jaiak, zerbitzuak eta aisialdirako eta denbora librerako gainerako jarduerak, gehienak irekiak eta doakoak: urtebetetze jaiak, kirolwkend, Olentzero eta Mari Domingi, Errege Magoak, txapelketa sozialak, Jolastokia zerbitzuak eta ikasteko laguntza, Estadioko Jokoak eta kirol campusak eskolako oporretan.

JUNIORRA (13 ETA 20 URTE BITARTEKOAK)

Badmintona, saskibaloia, GAP, juniorbox, padela, euskal pilota, tenisa eta triatloia.

SENIORRA (55 URTETIK GORAKOAK)


Aquagym, body dance, kardio indarra 65etik gorakoentzat, entrenamendu funtzionala 360, bizkarreko eskola, feldenkrais, indarra 65etik gorakoentzat, mantentze gimnasia, igeriketa, nordic walking, taichí, yoga eta zumba gold.

HELDUAK (18 URTETIK GORAKOAK)

Abdominalak eta luzaketak, antiaging, aquagap, aquagym, aquaplus, aquatonic, boxingfit, circuit, dantza & inprobisazioa, ariketa kardio-osasungarria, bizkarra eskola, feldenkrais, emakumeek indarra lantzea, mantentze-gimnasia, erditze aurreko eta osteko gimnasia, mindfulness meditazioa, mendizaletasuna, igeriketa, nordic walking, nordic power, padel, pilates allegro, estresaren aurkako erlaxazioa, xendazaletasuna, stretchingfit, sup pilates pool, taichí, tenis eta emakumeen triatloia.

Denboraldi honetan, KIROL PLUS formula berriak martxan jarraitu du. Formula horrek Fitness zerbitzurako sarbidea eta hilean 700 saio baino gehiago eskaintzen ditu, 16 jarduera motatakoak, hala nola barre, bodypump, core, bizkar aktiboa, GAP, HIIT, pilates, tonu oro, spinning ets yoga, besteak beste.









2025EKO UDA
‘UDA MARTXAN, UDA AKTIBOA!

Udako denboraldirako honako ikastaro eta jarduera hauek programatu ziren:

HAURRAK (-12 URTETIK BEHERAKOAK) ETA JUNIORRA (13 ETA 20 URTE BITARTEKOAK)

erraketa campusa, tenis campusa, euskal pilota kanpusa, juniorbox, kirola euskaraz, igeriketa, padela, parkour-a, tranpolin jauziak, sport & english, tenisa eta hondartzako boleibola..., iraileko Haur Jaiarekin batera: ikuskizunak, antzerkiak, tailerrak, puzgarriak, musika eta dantza uztartzen ditu, eta arratsalde erdian askari gozoa banatzen da, beste jarduera askoren artean.

HELDUAK (18 URTETIK GORAKOAK)

Bizkarreko eskola, erditze aurreko eta osteko gimnasiak, outdoor igeriketa (aire zabalean, estali gabeko igerilekuetan), nordic walking, padela, taichia, tenisa eta yoga, entrenamendu pertsonalez gain, yoga eta aire zabaleko taichi saio irekiak...

Uda honetan, KIROL PLUS formulak jarraitu du, eskari txikiagora eta urteko sasoira egokituta. Formula horrek nabarmen murrizten du hileko saioen kopurua gainerako denboraldiarekin alderatuta, baina aurreko udan baino eskaintza handiagoa izan da, 14 modalitate egon dira, asteko 111 saiotan banatuta, ondorioz, udako hilabeteetarako oso proposamen erakargarria eta osoa egin dute.

2025/26 DENBORALDIA
‘KIROLA, ERREZETARIK ONENA’

2025eko urritik abendura honako ikastaro eta jarduera hauek eskaini dira:

HAURRAK (12 URTETIK BEHERAKOAK)

Saskibaloia, oinarrizko kirola, funky hip hop, futbola + balioak, futbol akademia, gimnasia erritmikoa, karatea, minibasketa, minifutbola, igeriketa, padela, euskal pilota, tenisa eta triatloia. Horiei gehitu behar zaizkie jaiak, zerbitzuak eta aisialdirako eta denbora librerako gainerako jarduerak, gehienak irekiak eta doakoak: akrobaziak, kirolwkend, Olentzero eta Mari Domingi, Errege Magoak, txapelketa sozialak, Jolastokia zerbitzuak eta ikasteko laguntza, Estadioko Jokoak eta kirol campusak eskolako oporretan.

JUNIORRA (13 ETA 20 URTE BITARTEKOAK)

Badmintona, futbol akademia, GAP, juniorbox, padela, euskal pilota, tenisa eta triatloia.

SENIORRA (55 URTETIK GORAKOAK)

Aquagym, body dance, kardio indarra 65etik gorakoentzat, entrenamendu funtzionala 360, bizkarreko eskola, feldenkrais, indarra 65etik gorakoentzat, mantentze gimnasia, igeriketa, nordic walking, taichí, yoga eta zumba gold.

HELDUAK (18 URTETIK GORAKOAK)

Abdominalak eta luzaketak, antiaging, aquagap, aquagym, aquaplus, aquatonic, boxingfit, circuit, dantza & inprobisazioa, ariketa kardio-osasungarria, bizkarra eskola, feldenkrais, mantentze gimnasia, erditze aurreko eta osteko gimnasia, mindfulness meditazioa, mendizaletasuna, igeriketa, nordic walking, padel, pilates allegro, estresaren aurkako erlaxazioa, xendazaletasuna, stretchingfit, sup pilates pool, taichí, tenis eta emakumeen triatloia.

Denboraldi honetan, KIROL PLUS formula indartu da. Formula horrek Fitness zerbitzurako sarbidea emateaz gain, jarduera gidatuen eskaintza asko handitu da, eta proposamen paregabea egin da gure inguruneko instalazioetan aurkitu ezin daitekeena, askotariko jarduera motak eskaintzen ditugulako (3 modalitate berri txertatu dira: dance, emakumeen indarra eta pilates ball), baita astean egiten diren saioen kopuruari dagokionez ere (196), hilean 800 saiotik gora egiten baitira.







KIROL PLUS FORMULA


KIROLPLUS

Jardueren eraikin berrian egiten den kirol eskaintza da: barne azalerako 1.600 metro koadroko solairu bi, kirolerako, eta 800 metro koadroko azalera estalkian. 5 areto berri eta plaka fotovoltaikoak dituen 800 metro koadroko estalkia ditu, eraikina energetikoki jasangarria izan dadin laguntzeko.

Sartzeko eskumuturrekoa erabiliz (pertsonala eta besterenezina) eta app-a deskargatuz, hilean **800 saio** inguru egin daitezke, **19 jarduera** gidatutan. Fitness aretoaren zerbitzuaren erabilera librea barne hartzen du eskaintza horrek, kuota bakarra ordainduta.

Kirol Plus urteko 12 hilabeteetan dago aktibo, denboraldi bakoitzera egokitutako eskaintza du, eta urte osoan kirol gidatua egiteko aukera du.

KIROL PLUSen eskainitako jarduerak guztira







LIFE FITNESS APP BERRIA


2025ean, Estadioak mugikorretarako aplikazio berri bat jarri du martxan, entrenamenduak kontrolatzeko eta Fitness aretoan zein aretotik kanpo egiteko. Aurrekoa zaharkituta geratu zen eta berria sinpleagoa eta intuitiboagoa da. 500 ariketa baino gehiagoko eta 200 ariketa propioagoko eskaintza du, fitness zerbitzuak sortuak, erabiltzaileei oinarrizko gaitasun fisikoak hobetzeko entrenamendurik onenak emateko, hala nola indarra, erresistentzia, malgutasuna eta abiadura, etab.

Aplikazioak, gainera, entrenatzaileekin komunikatzeko aukera ematen du, entrenamenduarekin lotutako edozein alderdi egokitu dezaten: helburua, intentsitatea, iraupena, eskura dagoen materiala, etab.




KIROL PLUS SAIOAK HILABETEZ HILABETE 2025EAN


Asteroko saioak urtarriletik ekainera



Asteroko saioak uztailean eta abuztuan




Asteroko saioak urritik abendura



JARDUERA GIDATUEN 2025EKO ESKAINTZA GUZTIRA

2025ean eman den kirol eskaintza osoa oso zabala da, Kirol Plus, formula horretatik kanpoko ikastaroak eta jarduerak, eta fitness kontuan hartuta. Jarraian, jarduera bakoitzean abonatutakoen bilakaera erakutsiko da hilabetez hilabete. Urtean zehar 64.581 pertsonak hartu parte dute profesionalek gidatutako jardueretan.

2025ean zehar jardueren eskaintzan abonatutako pertsonen bilakaera eta konparazioa



08

KANPAINAK



JOLASAK ESTADIOAN

Jolasak, mozorro-dantzak, etab. Tanis aretoan, igande arratsaldetan, 4 eta 7 urte bitarteko haurrentzat.



KIROL WEND

Aisialdi aktiboa, osasungarria eta dibertigarria 8 eta 12 urte bitarteko haurrentzat asteburuetan eta jaiegunetan.



ESTADIO CAMPUSA

Kirol jarduerak 5 eta 12 urte bitarteko haurrentzat. Eskolako oporretan 9:00etatik 13:30era. Eskaintza zabala, hamaiketakoa barne.



XENDAZALETASUNA ETA MENDIZALETASUNA

Ingurune naturalaz gozatzeko irteerak, gida espezializatuekin batera, OUTDOOR KLUBAREN eskutik.



AKROBAZIAK

Hileko hirugarren igandean, akrobazietan hasi nahi duten 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzat.

09

KIROLAZ KANPOKO JARDUERAK



Gabonetako jaiak



Estadio Zinekluba



Summer Jaia 2025




Mojate-Busti Zaitez



Jazz Estadioan



Haur Jaia



Ikasteko laguntza




Working-a ordezkatzeko gune soziala





Estadioko 4 aldizkari argitaratu dira



ESTADIO

Vital FUNDAZIOA